



# EKUADOR

“ETA BIDEAN... ITZALA”

Liburu honetan egileek Ekuadorreko herri-ipuín bat aurkezten digute kultura, leiendak, kondairak, herriko ospakizunak, ohiturak eta gastronomia lagunduta. Gure artean kanpotik etorri eta gurekin bizi direnek beraien kultura hobeto ezagutzeko bide ematen digute.

Bilduma honen helburua aniztasunaren aldeko apostua da. Kultura ezberdinen arteko elkarbizitza, ezagutza eta errespetua landu nahi dugu

Kokapena  
Aurkezlea

Ipuína: “Eta Bidean... Itzala”

Txikitako pasadizoak

Ospakizunak

Gastronomia

Errezeta

Didaktika

# KOKAPENA

ANDEETAKO HERRIALDERIK TXIKIENA



EKUADOR





ANDEETAKO MENDIKATEAK ZEHARKATZEN  
DITUEN HERRIALDERIK TXIKIENA DA.  
ANDEEK EA HEGOAMERIKA OSOA  
MENDEBALDEKO KOSTATIK ZEHARKATZEN  
DU. IZENA BERTA IGAROTZEN DEN  
EKUATORE-LERROTIK HARTZEN DU IZENA  
EKUADORREK.

1999.KO KRISIALDIAK MILAKA  
LANGILE BESTE HERRIALDEETARA  
EMIGRATZERA BEHARTU ZITUEN,  
LAN ZEIN BIZIMODU BALDINTZA  
HOBE BATEN BILA

HIZKUNTZA OFIZIALA GAZTELANIA BADA  
ERE QUECHUERA, BESTEAK BESTE,  
HITZ EGITEN DA.



# AURKEZLEA

JOHANNA ETA JHOMAYRA, LOJAN JAIKAK, EKUADOR



Johanna eta Jhomayra Tena gara, 17 eta 15 urte ditugu.

Ekuatorreko hegoaldan dagoen Loja kantoneko hiriburukoak gara eta Bilbon dagoeneko zazpi urte daramatzagu.

Gure aita gu baino bi urte lehenago etorri zen. Ama urte bat beranduago eta urte bat beranduago bost anai-arrebok etorri ginen, bi mutil eta hiru neska.

Hasiera nahiko gogorra izan zen, batez ere adin txikikoentzat. Gurasoengandiko konfidantza jaitsi zen denboraldi luze batez haiengandik urrun egon ziren eta.

Herrialde honetara etorri ginen arazo ekonomikoak zirela medio, handik etortzen den gehiengoaren antzera. Guk ez genuen espero, beraz, ustekabe handia izan zen. Aitona-amonek ez zuten gustoko familia banandu behar izatea eta Ekuadorrean geratu zen familia nahiko triste geratu zen baita gu ere. Ikusteko gogo handiak ditugu, orain arte ez dugu joateko aukerarik izan, baina bueltatzekotan bisitaz izango da, hemen bizi gara eta.





Hasiera batean zaila izan bazen ere, bertara egitea ez zaigu batere kostatu. Etorкін gehiengoak hizkuntzarekin arazoak ditu, baina hau ez da gure kasua, dena den hizkuntza eta mintzatzeko era arraroa iruditzen zitzaigun. Hitz eta esamolde asko eta asko zeharo ezberdinak dira.

Klaseko lehenengo egunean, gelara sartu ginen eta berehala ikaskideek oso altu hitz egiten zutela konturatu ginen. Hemen gogor hitz egiten duzuenez gero hika-mika zebiltzala

uste genuen. Ozenkiago hitz egiteko eskatzen ziguten. Ikaskide batek *kuterra* uzteko esan zidan baina nik ez nion ulertzen, guk xafla esaten diogu eta.

Bixia izan zen ere bi musuz agurtzeko duzuen ohitura guk ez genuen ezagutzen eta. Ekuadorrean "kaixo" esan eta burua apur bat makurtzen dugu elkarri agurtzeko. Horregatik harrিতuta geunden. Anai-arreba guztiok ikasten ari gara. Ni, Johanna, Giza-Integratioa eta Jhomayra batxilerra.

Eskolan etorkin asko gaude: hegoamerikarrak, txinatarrak, magrebekoak... asko ikasten da haiengandik. Eskolan hemengo janaria jaten dugu, baina gurean Ekuadorrekoa prestatzen dugu.

